

PLAZABERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

17-4-3 21. ALEA

Aurrekontuak
2017


4. ORR. ►

Erdi Aroko festa
maiatzean

6. ORR. ►

Akordioa
hondakinen arloan

8. ORR. ►



Erabakiaren
aroa hasi da

2. ORR. ►

“Erakutsi dugu posible dela ekimen batean herri honetan”

2017ko martxoak 19. egun hori markatuta geratuko da Zizurkilgo politikoaren inguruko iritzia eman ahal izan zutelako.



“Nekatuta baina aldi berean pozik”, horrela sumatu ditu Plazaberririk, Gure Esku Dago dinamikan galdeketa antolatzeten aritu diren Zizurkilgo taldeko kideak. 8-10 lagun izan da, azken astean lan eskerga egin duteenak bozketa errealtitate izan zedin. Talde eragilean adin ezberdinak ordezkariek daude, herrigintzan bide luzeago edo motzagoa egindakoak baina guztiek gogo egin dute lan ametsa errealtitatea bihurtzeko.

Bidea garantzitsua

Emaitzak eskuetan elkartu dira Plazaberrirekin baina emaitza garantzitsua izanda ere, bidearen garrantzia azpimarratu digute. “Prozesuarekin geratze naiz. Jende asko mugitu behar izan da eskualde guztian hau egiteko eta erakutsi dugu posible dela, herritarrek gure ahalmen hutsez eginda. Bozketa serio bat izan da,

«Herritarrok izan behar dugu azken hitza loteslea den gal- deketa batean»

gauzak serio egin ditugu, eta irudi hori garantzitsua da”. Izen ere bidea ez da erraza izan. “Muga handiak jartzen ditu Estatuak mota honekako galdeketa bat egiteko: Eraikin publikorik ezin eraibili, erroldarik ere ez, babes instituzionalik ezin jaso.... lan bolondres hutsarekin hori guztia gainditu dugu. Bozketa egunean esaten genuen moduan: Zenbat gauza egin litekeen herri honetan bolondresen bidez”. Hoztazunaren aurka borrokatu

dutela ere badiote. “Gaia oso hotza zegoen eta ez da erraza izan”. Gauza asko ikasi dituzten sentazioarekin geratu dira, “non asmatu dugun eta non huts egin”.


Bidea garantzitsua izanik ere, eguneko alde baikor eta ezkorren inguruan galdu diegu. “Nik poza eguerdian hartu dut pentsatzen ez genuen jende bat bota ematen ikusita. Esaterako, nigeriar taldea bota ematen ikustea pozgarria izan da, haien ulertu dutelako herri honen geroaz erabakitzeko aukera zutela”. Ez loteslea izateak beste batzuk atzeratu dituela uste dute, eta era berean posta bidezko bota ezin eginak beste askori mugak jarri dizkie. “Dena den sektore batengana iristeko zaitasunak izan ditugu eta

Ha comenzado la era de la decisión

19 de marzo de 2017. Ese día quedará marcado como el primer día en el que los y las zizurkildarras pudieron dar su opinión sobre su futuro político. Plazaberry se ha reunido con los representantes de Gure Esku Dago en Zizur-

kil. 10 personas de distintas edades y trayectorias, que se encuentran “cansadas, pero felices”.

Nos han remarcado la importancia del proceso hasta la consulta. “Se ha necesitado muchísima gente en la comarca, y hemos demostrado que es posible realizar una



a herriarrek antolatutako n etorkizunaz erabakitzea”

kilgo historian zizurkildarrek lehen aldiz beren etorkizun



hori gaur ere sumatu da. Hala ere, haietan ere jakin dute galdeketa bazela eta ikusi dute serio aritu garela”, gehitu dute. “Seriotasun handiz egin dira gauzak, batzuetan amorragarria da antolakuntzaren ikuspuntutik, baina gero ulertzen duzu garrantzitsua dela hori”.

Urrats gehiago

Tolosaldean izandako galdeketa bide batean urrats bat gehiago direla argi dute. “Datozen hilabeteetan ekainera arte bigarren olatua etorriko da, herri ugari batuko dira erabakitzeko eskuidearen gauzatzeko herritar honetara”. Eta etorkizun

ez oso luzean argi dute galdeketa loteslea lortu behar dela. “Azkenean herriarrek izan behar dute hitza, eta erakutsi beharko dugu indarra politikariei esateko loteslea den galdeketa batean ere erabaki nahi dugula”.

«Bozketa serio bat izan da, eta irudi hori ere garrantzitsua da»

3

“Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herriarra izan?”

Bozkak	633
Bai	616
Ez	13
Zuriak	4

consulta de este tipo solo con la ayuda de voluntarios, y haciendo las cosas con total seriedad”. El estado pone todo tipo de trabas a estas consultas: “No podemos utilizar edificios públicos, no tenemos el censo, no podemos recibir ayuda institucional... No obstante, con el trabajo

de los voluntarios y las voluntarias se han superado esos escollos”.

Dejando de lado los preparativos, les hemos preguntado por los aspectos positivos y negativos del día de la consulta. “Nos ha alegrado ver gente que no esperabas que viniera, como algunos

extranjeros que han entendido la importancia de decidir sobre este pueblo. Del mismo modo, hay que decir que no hemos llegado a un sector del municipio, aunque creamos que ellos también han visto la seriedad con la que hemos trabajado. Es un paso hacia el futuro”.

En las próximas semanas se realizarán más consultas en otros municipios de Euskal Herria. El final del camino lo tienen claro: “Los ciudadanos y ciudadanas debemos tener la opción de decidir sobre nuestro futuro en una consulta, y eso es lo que tendremos que exigir a los políticos”.

Herria berritzen jarraitzea h

2017ko aurrekontuak martxoaren 13an onartu zituen Zizurkilgo Udalbatzak. 3.078.725 €ko aurrekontua da, iazkoak baino % 1,8 handiagoak.



Estalpea egiteko gorde da diru kantitate bat.

Indarrean dira aurtengo aurrekontuak. EH Bildu eta PSEren aldeko botoarekin eta EAjren abstentzioarekin onartu zituen martxoko udalbatzak.

Kopurutan iazkoaren antzekoa da, baina inbertsioetarako geratu den diruan igoera bat bada. Iaz 373.000 euro bideratuziren eta aurten 417.000 euro.

Bozketaren emaitzaz galdetuta, Jose Mari Luengok argitu du hilabetetik gora eman zitzaiela oposizioko alderdiei aurrekontu proiektua begiratzeko eta ekar-

penak egiteko. "PSEk zenbait ekarpenean zituen eta horren inguruan hitz egin genuen, azkenean, erdi bide batera iritsi eta aldeko botaeman zuen. EAJk berriz, ez zuen proposamendu egin eta abstentitu egin zen".

P.M. Otaño plaza

Inbertsioetan bat nabarmenzen da (*Ikus taula*): P.M. Otaño plazaren eraberritzea, aurrez ere Plazaberrin landuguen proiektua. Horrez gain, Olatzako herri bidea konponduko da aurten. "Urtero herri bide bat berritza izan da guk hartu genuen konpromisoa eta aurten hori izango da. Diru laguntza espero dugu kasu honetan", zehaztu du alkateak.

Joxe Arregi plazan egin nahi den estalpeak ere badu diru partida bat, baina ez proiektu osoa ordaintzeko "Finantza erakundeekin hitz egiten ari

Presupuestos para seguir renovando el municipio

Los presupuestos de 2017 se aprobaron el 13 de marzo. Su cuantía asciende a 3.078.725 €, %1,8 más que el año pasado. El presupuesto se aprobó con el voto a favor de EH Bildu y PSE y con la abstención del PNV. "El PSE presentó propuestas y hablamos sobre

ellas. Mientras tanto, el PNV no presentó ninguna y se limitó a abstenerse", explica el alcalde Joxe Mari Luengo. Según el primer edil, estos son los objetivos del presupuesto: "Mantener los servicios, continuar pagando la deuda y seguir reformando el pueblo".

La inversión principal será la que se destinará a la reforma de la plaza P.M. Otaño, exactamente 212.000 euros. Aparte de la reforma de la plaza, también se ha destinado dinero para la cubierta de la plaza Jose Arregi, al arreglo de las goteras del fron-

tón Intxaur, el desarrollo de la iniciativa de las huertas de ocio y a colocar una nueva iluminación en el puente de Ugare, entre otras cosas. "La iluminación de la parte de Zizurkil la haremos este año y, si Villabona está interesada, le presentaremos el proyecto",

elburu duten aurrekontuak

«6 urte daramatzagu kontuak ixten mai-legurik eskatu gabe»

gara, garrantzia berezia du guretzat eta atzeratzen ari zai-gu. Finantziazo aukera ezberdinak ditugu mahai gainean, 200.000 euroko kostua izango baitu dagoeneko prest den proiektuak. Ea aurten amai-ra ematen diogun gune horri herritarren eskaera hau betez”.

Bulandegi kalea

Plazetako oinezko, Udal gobernuarentzat Bulandegi kaleko inbertsioa izango da hurrengo lehentasuna. “Aurten 10.000 euro jarri ditugu kale hori berritu eta txukuntzeko proiektua egiteko. Proiektua egitea ez da erraza, Aldundiarena baita errepidea eta horretarako elkarlana ezinbestekoa dugu Aldundia-rekin”.

Horrez gain, bideetan baserrietako kartelak jartzeko

egitasmoa, Ubareko oinezko Zubiko argiteria eta herri baratzak ere aipatu dizkigu alkateak. “Aurten ere sartu dugu aurrekontuetan herri baratzena espero dugulako behingoz proiektua garatzeko ezinbestekoak diren lur kutsatuak kenduko dituztela. Ez dago erabat gure esku baina itxaropen hori dugu”. Intxaур frontoiko konponketa ere jaso dute aurrekontuek. “Itoginak daude frontoian, eraikina itxura modernokoa bai baina urak goian gelditzen dira zati batean eta arazoak ematen ditu. Ur filtrazioekin beste arazo batzuk ere badaude eta horiek ere konpondu nahi ditugu. 7.000 euro aurreikusi ditugu”. Inbertsio txikietan, Karidade eraikinean Udalak duen lokala egokitu nahi da larrialdietako babesleku publiko gisa, esaterako eraso matxisten kasuan erabiltzeko.

Zorra

Aurten ere aurrekontuko zati handi bat zorra ordaintzeke da. “Miloi bat eta 300.000 euro ingurukoa da

gaur egun zorra. Aurten ere zulo beltz hori estaltzena dirutza joango da: 260.210 € amortizazioan eta interesetan 17.350€”. Pixkanaka jaisten doa ordaindu beharreko kantitatea baina zama handia da oraindik. “Ederra litzateke diru hori inbertitze-ko edukitzea. Gutxi gora behera urtea miloi bat euroko zorrarekin amaituko dugu, honenbestez EH Bildu Udalera sartu zenetik bi miloi eurotik gora kendua izango dugu zorretan. 6 urte daramatzagu diru kont uak ixten



Frontoiko itoginak konponketa aurreikusten da.

5

mailegurik eskatu gabe eta besteek utzi zizkiguten zorrak ordaindiz”, gogoratu du alkateak.

Inbertsioa	Zenbatekoa
P.M. Otaño plaza berria	212.000 €
Olatzako herri bidea	40.000 €
Herri baratzak	28.735 €
Bulandegi kaleko proiektua egitea	10.000 €
Aterpea Joxe Arregi plazan	33.000 € *
Baserrietako kartelak jartzea	15.000 €
Frontoiko konponketa	7.000 €
Ubareko oinezko bidearen argiteria	4.500 €
Besteak (Atxulondoko ordularia, karidadeko lokala, material hainbaten erosketa...)	66.765

*Finantziazo bide ezberdinak aztertzen ari dira proiektu osoa ordaintzeko

remarca Luengo. También se quieren implantar las bases de diversos proyectos futuros. Tras las reformas de las plazas, el siguiente proyecto principal de la corporación municipal será la inversión de la calle Bulandegi. “Este año hemos previsto 10.000 euros para la

elaboración del proyecto. Su diseño no es fácil, porque la carretera que atraviesa la calle es propiedad de la Diputación. Por lo tanto, es imprescindible la colaboración entre ambas entidades. Es un proyecto de suma importancia para nosotros”.

La deuda

Una gran parte del presupuesto de este año se destinará a pagar la deuda. “La deuda actual del Ayuntamiento de Zizurkil es de un 1.300.000 euros. Este año hemos tenido que reservar 277.560 € para seguir pagando la misma. Desde

el año 2011 hemos liquidado una deuda de dos millones de euros. Llevamos 6 años sin solicitar ningún préstamo y pagando las deudas que nos han dejado. Es una gran carga, pero, afortunadamente, la estamos disminuyendo”, ha remarcado el alcalde.

Maiatz

Maiatza Saltsanen baitan, hilabeteko hirugarren larunbatean Erdi Aroko hiribilduaren itxura hartuko du Elbarrenak. Horretarako herritarren partaidetza eskatu dute Kultura batzordetik.

6

Udazkenean hasi ziren zenbait zizurkildar buruari eragiten: 2015ean egindako Herri Antzerkiak herritarren artean sortu zuen giro berezi hori nola berreskuratu? Kultura Batzordeko parte diren Hernandorena Kultur Taldeko kideek Atxulondo burdinola ezagutzen emateko beharra azpimarratu zuten, eta hori asetzetako alderako, Atxulondoko olari buruzko

argitalpena prestatzeko konpromisoa hartu zuten. Esan eta egin. Argitalpena inprentan dago jada, eta maiatzean zehar etxe guztietara helaraziko da ale bat. Atxulondo Erdi Aroko ola izanik, garai honetako bizi-modua ezagutaraztea otu zi-tzaien. Horretarako Erdi Aroko hiribildu bilakatuko dute Joxe Arregi Plaza ingurua. Nola? Herritarren parte hartzearekin.

Maiatzak 20

Hartu gogoan data hau. Egun horretan, zizurkildarrok Erdi Arroa bidaiatzeko aukera izango baitugu. Batzordekideek kontatu digute egun horretarako prestatzen ari direna: "Joxe Arregi Plaza inguruan garai hartako lanbideak ezagutzen postuak egongo dira. Denak zizurkildarrek jarritako postuak izango dira, herritarren parte hartzearekin egin nahi baitugu festa hau", azpimarratu dute: ola, perratokia, sega-pikatzailea, odolkigileak, egur-taila, hargina, zapataria, botika, lanabesak... Izango da zer ikusi, eta baita zer entzun ere. Garaiko juglareak imitatz, musika ere izango baita herriko musikariei eta Loatzo

«Modu askotara, bakoitzak egiten dakien hori jarri, parte hartu dezakete herritarrek»

Musika Eskolari esker. Haurrek ere izango dute ondo pasatzeko aukera, "aintzinako haur jolasak aterako dituzte kalera".

Gaur egun bezala, Erdi Aroan ere mahaiaren bueltan biltzen ziren euskaldunak. Ondorioz, bazkari herrikoia ezinbesteko osagaia da festarako. "Hori bai, Erdi Aroko moduan egingo dugu: baratxuri-zopa eta oillasko erreña gaztainekin. Dena buztinezko ontzietan", aurreratu dute.

Arratsaldean, Danena futbol zelaian bote-luzean jokatuko dute herriko zenbait gaztek. "Eskuzko pilotu modalitate zaharrena da, antzina belar soroetan jokatzen zen. Bertatik datoz kintzeak. Ikusgarria izango da". Eta jaiarekin amaitze-

Teresitaren ezkontzaren inguruko antzerkia

Antzerkiak ere lekua izango du Erdi Aroko Zizurkilen. Iraitz Lizarraga aktoreak gidatuta, esketx ezberdinak prestatzen ari dira zenbait herritar. Lizarragak adierazi duenez, "antzerkian parte hartu nahi duen orok ora-indik ere badu horretarako aukera". Esan bezala, Udal bulegoetara gerturatutu besterik ez du horretarako. Antzerki sortak benetako egoera

batean ardaztuko dira: "San Millango Marquesaren alaba, Teresita, Okendoko semearekin ezkontzera doa, eta ezkontza honen inguruan sortutako kontuak dira irudikatuko direnak", aurreratu digu. Iraitz berak gidatzen duen *Ipuinetik antzerkira* tainerreko umeek ere parte harako dute festan. Erdi Aroko titiriteroen paperean sartuta, ikuskizun bat eskainiko dute.

¡El 20 de mayo todos y todas a la c

Memorizad bien esta fecha. Y es que el 20 de mayo los alrededores de la Plaza Joxe Arregi se convertirán en una villa medieval. Un grupo de zizurkildarras está preparando una fiesta medieval con la intención de conocer

el modo de vida de la citada época. "Pero lo haremos exclusivamente con la participación de los zizurkildarras", remarcan. En la plaza se escenificarán los diferentes oficios que había en aquellos siglos. Así, habrá diferentes

aren 20an, zatoz Erdi Arora!

ko, ezpata-dantza dantzatuko dute. Azkenik, erromeria batekin burutuko da eguna.

Parte hartu!

Aurreko urteetako Maiatz Saltsanen aldietañ ongi frogatu da herriaren artean pres-tatutako ekimenek izaten du-tela arrakastarik handiena. Asmo berarekin ari dira lanean aurtengoan ere. "Modu askotara, bakoi-tzak egiten dakien hori jarriz, parte hartu de-zakete herriarrek: pos-tu bat jarriz, herri ba-zkarian zerbitzatuz, antzerkian aktore zein figurante gisa arituz, postuetako montajeñ edo desmontajeñ

lagunduz, dekorazioa presta-tuz, edo baita egun horretan ikusle gisara hurbilduta ere". Azken hauen kasuan, anto-latzaileek garaiko jantziekin jantzia azaltzeko eskatzen die herriarrei. "Herriko hiru ikas-tetxeetako haurrek Erdi Aroko jantziak prestatu dituzte, eta helduok ere gauza

bera egitea eskatzen dugu. Lana errazteko, Plazida Otaño Liburutegian jantziak eraku-tsiko ditugu eredu gisa erabil-tzekeo", gehitu dute.

Era batera edo bestera parte hartzeko prest daudenek anto-laketa lanetan ari den edonori esan edota udal bulegoetara

gerturatu besterik ez dute egin behar.

Maiatza Saltsan bete betea

Maiatzaren 20koaz gain bes-te hamaika ekimen izango dira aurtengo Maiatz Saltsan pro-gramazioaren baitan. Hilaren 6an, Atxulondo burdinolara ibilaldia egingo da. Egun be-rean baina arratsaldez, emaku-me txirrindularien lasterketa izango da. Maiatzaren 7an, Aitztondo mailan antolatzen ari diren Zuberoako maskara-dak hartuko du lekua. Hilaren 13an Dantzari Txiki eguna os-patuko da Zukalai Dantza Tal-dearen eskutik. Hileko azken larunbatean, maiatzaren 27an,

Senidetze eguna ospatuko da, Adunan.



época medieval!

puestos. También habrá jue-gos antiguos para los niños y las niñas. Al mediodía, se cele-brará una romería. Los jóve-nes del pueblo harán una exhibición de bote-luzea en el campo de fútbol Dane-

na y, para terminar, se cele-brará una romería.

¡Participa tu también!

Los organizadores a travé-s de estas líneas quieren ani-mar a los vecinos y vecinas a participar en la fiesta. "Se

puede participar de distintas formas: poniendo un puesto, ayudando en la decoración del pueblo, participando en el montaje, sirviendo la comi-da e, incluso, como espectador de la fiesta". En este último caso, piden venir vestidos con

la vestimenta medieval. Para ello, pondrán en la biblioteca Plazida Otaño algunos vestidos para tomarlos como ejemplo. El que quiera partici-par en alguna actividad debe acercarse a las oficinas munici-pales y dar allí su nombre.

Garai berria hor

EH Bilduk eta PSE-EEk hondakinen bilketa sistema berria adostu dute. Plazaberri Joxe Mari Luengo alkatearekin eta Josean Sanchez PSEko zinegotziarekin elkartu da.

8



Nola lortu zenuten akordioa hasiera batean hain jarrrera ezberdinak izanda?

Joxe Mari Luengo: Guk ikusten genuen, batetik, akordioaren bidez garai berri bat irekitzeko premia, eta bestetik, lortutakoa kontuan izanda hobetu genitzakeela datuak. Ezin ahaztu azkenean, birziklapen tasa altuak lortzea dela helburua. Noski, akordioa lortzeko beti utzi behar duzu zuretik zerbait, baina helburu horien bidean bilketa sistema egokia iruditu zitzagun, gure oinarriei azaldu genien eta aurrera egin dugu.

Josean Sanchez: Urtebeteko negoziaketen ondorio izan da. Gure jarrera 5. Edukiontzia aldekoa izan arren, ikusten genuen aurrera egin behar genuela, gatzaka giroa gainditu, eta horretarako gehiengoa duenarekin adosten saiatu behar duzu.

Una nueva era en la gestión de residuos

EH Bildu y PSE-EE han acordado el nuevo sistema de recogida de residuos, dando comienzo así a una nueva era de acuerdo en este tema tan conflictivo en los últimos años. Plazaberri se ha reunido con el alcalde Joxe Mari Luengo, y el edil del PSE-EE Josean Sanchez.

¿Cómo se llegó al texto presentado por los dos partidos partiendo de posturas tan distintas?

Joxe Mari Luengo: Nosotros veíamos por un lado, la importancia de superar una etapa por medio del acuerdo, y por el otro lado, la necesidad de mejorar sin olvidar lo avanzado y con la premisa de tasas altas de reciclaje, que es la base de toda propuesta. Para llegar a un acuerdo, hay que ceder, y vimos que este sistema era una opción viable y podía conseguir los objetivos de reciclaje marcados.

Josean Sanchez: Ha sido

fruto de negociaciones durante un año aproximadamente. Aunque nuestra postura era a favor del 5. contenedor, entendíamos que había una necesidad de avanzar, de superar la crispación en la sociedad de Zizurkil y a eso se llega por el medio del acuerdo con quien tiene la mayoría.

No es el sistema que aparecía en vuestros programas electorales...

J.S: Toda negociación es acercar posturas, no es cuestión que venza una sobre otra, algo hay que dejar en el camino, y llegar a un punto de encuentro.

J.M.L: Nosotros intentamos acordar con los dos grupos de oposición y llegamos a un acuerdo con quien quiso hablar sobre ello. Creemos que es un acuerdo asumible para los habitantes y entre ellos, no debemos olvidar que hay una mayoría que ha realiza-

Hondakinen kudeaketan

Ez da zuen hauteskunde programetan agertzen zen sistema...

J.M.L.: Gu saiatu ginen oposizioko bi alderdiekin adosten eta hitz egin nahi izan duenarekin adostu dugu. Uste dugu akordioa onartzeko moduko dela herritarrentzat, eta bereziki, ezin ahaztu, atez atekoa ora-in artean modu egokian egin duen gehiengo horrentzat.

J.S.: Negoziazio guztietan erdibidera iristen saiatu behar duzu, ez da kontua batek besteari irabaztea.

Zein dira sistema berriaren helburuak?

J.S.: Birziklapenari dago-kionez helburu zehatzak jarri ditugu (%70 sei hilabetean eta %80 hamazortzi hilabetean) eta hori garrantzitsua da, baina ez da gutxiago gai honen inguruan herrian giro lasaiagoa lortzea eta

Josean Sanchez:
«EL PNV no ha acudido a casi ninguna reunión»

do correctamente el puerta a puerta.

Este cambio en el sistema, ¿conlleva un proceso de seguimiento?

J.S.: Efectivamente, nos

Hondakinen bilketa sistema berriaren inguruko argibide praktikoak Explicaciones prácticas sobre el nuevo sistema de recogida de residuos

- Ontzi arinak eta papera albo kargako edukiontzien bitarbez jasoko dira. Guztira 18 bilketa puntu jarri dira.
- Errefusa eta organikoa atez ate jasoko da, orain arte bezala.
 - Organikoa astearte, ostiral eta igande gauean, jasoko da.
 - Errefusa larunbat gauean jasoko da.
- Beira, arropa eta olio bilketan ez dago al-daketarik, orain arte bezala edukiontzien bitarbez jasoko dira.
- Komertzialako kartoia astearte eta ostiral gauean jasoko da, atez ate.
- Traste zaharrak astelehen iluntzean atera behar dira, edukiontzien aldamenera. Aldez aurretik mankomunitateko telefonora deitu behar da (943676216).
- Ez da onartuko modu inkontrolatuan kainen hondakinak uzterik.
- Los envases y el papel se recogerán mediante contenedores de carga lateral. En total se han establecido 18 puntos de recogida.
- La recogida del orgánico y el rechazo, se mantendrá como hasta ahora, mediante cubos.
 - El orgánico los martes, viernes y domingos a la noche.
 - El rechazo los sábados por la noche.
- La recogida del vidrio, la ropa y el aceite no cambiará, se recogerá como hasta ahora mediante contenedores.
- El cartón de los comercios se recogerá los martes y viernes noche, puerta a puerta.
- Para la recogida de trastos viejos se tendrán que sacar los lunes al lado de los contenedores. Antes, hay que llamar al teléfono de la mancomunidad para avisar (943676216).
- No se aceptará que se depositen los residuos de modo inconsolidado.

Herritarrak informatzeko edo hondakinen alorean behar den materiala eskuratzeko arreta zerbitza Aurrerako bulegoetan dago kokatua: 11:30etako 14:00ak arte astelehen, ostegun eta ostiraletan.

Para informar, aclarar las dudas o recoger el material relacionado con los residuos se ha establecido una oficina de información en los locales de la plaza Aurrera: De 11:30 a 14:00 los lunes, jueves y viernes.

hemos comprometido a reunirnos en una comisión de seguimiento. El acuerdo no es fijo e inmóvil, nos reuniremos y valoraremos los resultados e intentaremos ir avanzando en el reciclaje y la concienciación. Y si así se acuerda, seguiremos implementando cambios.

¿Cuáles son los objetivos?

J.S.: Nos hemos marcado unos objetivos claros en cuanto al reciclaje (70% en 6

meses y 80% en 18 meses) y eso es importante, pero no lo es menos recuperar un ambiente más distendido en el pueblo respecto a la gestión de residuos y de paso, mejorar la imagen del pueblo ya que hoy en día nos encontramos con bolsas de basura en el suelo.

El PNV ha arremetido contra el acuerdo con calificativos como chapuza, burla...

J.S.: No voy a entrar en va-

lorar descalificaciones. Cada uno se califica por sí mismo. En las reuniones que hemos llevado a cabo durante un año en el ayuntamiento estábamos llamados todos los partidos y a casi ninguna ha aparecido el PNV. Esa es la realidad. Entonces, hablar de chapuza por el hecho de no estar ellos en el acuerdo no es de recibo.

Como hemos mencionado, periódicamente, se reunirá una comisión de seguimien-

ELKARRIZKETA



*Joxe Mari Luengo:
«Sistema ez
da helburua,
bitarteko bat da
birziklapen tasa
altuak lortzeko»*

E AJk gogor jo du akordioaren aurka, txapuza eta burla hitzak erabiliz, bes-teak beste...

J.M.L.: E AJk ez du negozia-tu nahi izan. Ez dute ikusten aurrera pausurik akordioa lortzeko gure asmoan. Sis-tema garrantzitsua da, baina azkenean bitarteko bat bes-terik ez da birziklapen tasa altuak lortzeko. Herritarrek birziklatzeko ohitura hartzen badute eta emaitzak onak badira, beste aldaketa bat-zuk egitea azter genezake. E AJk beti aurkituko gaitu hitz egin nahi badu. Hori bai, eskatzen dioguna errespe-tua da, gutxienekoa beharko lukeena.

J.S.: Ez dut irainik baloratu-ko, bakoitzaz bere hitz eta ekintzengatik ezagutzen da.

bide batez herriaren itxura hobetzea.

Sistema aldaketa honek, jarraipena ere eskatuko du, ezta?

J.S.: Bai, noski, jarraipen batzordean elkartzeko kon-promisoa hartu dugu. Lortu

dugun akordioa ez da al-daezina, elkartuko gara eta ikusiko dugu zer dijoan ondo eta zer gaizki, eta saiatuko gara birziklapenean eta kon-tzientziazioan aurrera egiten. Eta alde guztiek egoki ikus-ten badugu, aldaketak egin-go ditugu.

to. Cualquier ciudadano interesoado puede participar en ello, y como no, el PNV tam-bién, que hasta ahora no ha querido hacerlo. Serán bien recibidos.

J.M.L.: El PNV no ha querido negociar. No ven un avance en nuestro intento de acordar. Nosotros seguimos abiertos a hablar con ellos. El sistema es importante, pero

es un medio para conseguir altas tasas de reciclaje. Si los ciudadanos y ciudadanas cogen el hábito del recicla-je, se podrá hablar de otros cambios o mejoras. Eso sí, lo mínimo que les pedimos es respeto.

¿Qué mensaje traslada-ríais a los y las zizurkilda-rrias?

J.S.: Creo que debemos tomar parte del acuerdo todos. Como toda norma que ese establezca por una amplia mayoría, hay que respetarla. Puede haber co-sas que nos gusten más o menos, pero, al final es respon-sabilidad de todos que esto llegue a buen puerto y podamos seguir mejorando. La concienciación es impor-

Urtebetean egin ditugun bi-leretara alderdi guztiak zeu-den deituak eta E AJ ia bilera batera ere ez da etorri. Orain, eurak akordioan ez daudela txapuzaz hitz egitea... ez da onargarria. Esan dugun moduan, lortutakoa jarraipen batzordean aztertuko dugu. Nahi duten herritarrek parte har dezakete bertan, eta nola ez, baita E AJk ere, orain arte ez du nahi izan.

Zer mezu emango ze-niokete herritarrei...

J.S.: Akordioaren parte izan behar dugu guztiok, arauak, orain bezala, gehiengo handi batez onartuta, errespetatu egin behar dira. Egongo dira gutxiago gustatzen zaizkigun gauzak, baina arduraz jokatu eta herria hobetzea guzton betebeharra da. Kontzi-en-tzazio kanpainak egingo dira eta espero dut guzton gure hondar alea jartzea elkarbi-ditzaren eta birziklapenaren alde.

J.M.L.: Etorkizuneko belau-naldien geroa eta osasuna dugu jokoan birziklatze ta-sekin. Ezin dugu hori ahaztu.

tante y se harán campañas en este sentido. Espero que todos seamos conscientes de la importancia del acuer-do y pongamos nuestro gra-nito de arena por el reciclaje y la convivencia.

J.M.L.: Estamos labrando el futuro de las generaciones venideras en nuestra tasa de reciclaje. No se nos debiera de olvidar nunca.

Martxoan, ekitaldiz blai

Maiatzera zain egon gabe, ekitaldiz betea izan da martxoan Zizurkilen. Hainbaten berri jaso du Plazaberrik argazkitan.



11

Txapel egunaren barnean urteroko jaialdi bikaina eskaini zuten Bukalaiko neska mutilek.



Aizan taldekoen eskutik izan zen martxoko ipuin kontaketa Plazida Otañon.



Zizurkil-Asteasuko Karidadeko Benta taldea Ereñotzuren aurka aritu zen herriarteko txapelketan. 14-10 etxeakoak izan ziren nagusi.



Danenako txirrindularien taldea lehen lasterketak jokatzen hasi da martxoan.



Zizurkilgo II. Mushing txapelketak irudi ikusgarriak utzi zituen martxoaren 26an.



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartz
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorenaren 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, behea,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

HERRITARREN TXOKOA

ARANTXA ETA MARI HERNANDEZ



“Hizkuntza ikasteko eta gustua hartzeko denbora behar da”

Arantxa eta Mari Hernandez ahizpek euskara ikasten dihardute AEKren eskutik, Zizurkilen lehen eta aurtengoan, beren mailako taldearen faltan, Amasa-Villabonan. Zizurkilgo Udalaren izenean, euskara ikasleek eramango dute lekukoa aurten ere igarotzear den Korrikan.

Zenbat urte daramazue euskara ikasten?

Arantxa: Orain dela urte asko hasi ginen.

Mari: Ni orain dela 25 bat urte hasi nintzen, eta 3 urte egin nituen ikasten: presiorik gabe, gustuko nuelako.

Arantxa: Lehendabizi lehen perfila atera genuen; gero euskaltegira joateari utzi genion. Baino, berriro hasi ginen pasa den urtean, urtarrilean, bigarren perfila ateratzeko. Orain dela 8 urte Maizpiden ere egon ginen, 8 hilabetez.

Zerk bultzatuta?

Gustuko dugulako, lanerako behar dugulako,... pixka bat denetarik.

Zer egiten zaizue zailena ikasketa prozesuan?

Arantxa: Niri hitz egitea.
Mari: Niri idaztea.

Euskara ikasteko zuen

egunerokoan nolakoa izan ohi da?

Mari: Astelehen, astearte eta ostegunetan joaten gara eskolara. Jaione Rodriguezek ematen dizkigu eskolak; onena da.

Arantxa: Bai, hala da. Mintzalagunera ere joaten naiz ni Maiderrekin. Oso ona baita ere.

Mari: Nik mintza-praktika astean behin egiten dut nire lankideekin: Ana Mari Legarra eta Mailu Ibarbia. Gustatzen zait euskaraz nola egiten duten entzutea ere.

Gainerakoan, etxean, kalean, baduzue euskaraz egiteko aukerarik?

Zizurkil oso herri euskalduna da eta horrek aukera ematen du euskaraz egiteko. Denak laguntzeko prest daude.

Lanean ere giro euskalduna daukagu eta herriko ekintzetan parte hartzen aukera ere izan dugu: in-

auterietako kalejiran ikastetxeekin batera parte hartu genuen Fraisoroko Uliazpiko taldeak. Etxean, zenbaitetan zailagoa da: gu euskaraz egiten ahalegintzen gara baina seme-alabek, ohitura-gatik-edo, gurekin ez.

Zizurkilgo Udalaren izenean Korrikan parte hartzeko lekukoa euskara ikasleek eramango dute. Garrantzitsua da aitorza?

Bai, ahalegin handia da. Hizkuntza ikasteko eta gustua hartzeko denbora behar da. Honaino iritsi eta gero, jarraitzea da onena.

Parte hartu ohi duzue Korrikan?

Orain dela urte asko ateratzen ginen. Ikastola-rekin, seme-alaben eragin, egin izan dugu.

Euskara ikasten hastea

“Zizurkilen aukera dugu euskaraz egiteko”

atzeratzen ari denari, zer esango zenikote?

Ahal bezain laster hasako, gero eta beranduago hartza zailagoa baita.

Esaiguzue...

Pertsona bat:

Arantxa: Erasun pilotaria.
Mari: Maria Izagirre, Joxe Arregiren ama.

Leku bat:

Zizurkil Goia.

Zer dago faltan?

50-65 urte bitartekoentzat ekintza gehiago: irteerak, asteburu pasak, ikastaroak...

Zer dago soberan?

Ezer ez.